



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2016ko maiatzaren 2an, 17:00etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzan dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. G.G.H.ek lizentzia eskatu zuen, portxea eraikitzeke *Iaulinborda* etxeko mendebaldeko aldean, ekialdeko aldean eraikitzen ari den modukoa. Obra hori lurzoru urbanizaezinean egin nahi da eta jarduera baimendutzat hartzen du, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 111.2 artikulua. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea H. andreari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

2. R.S.S.k baimena eskatu zuen langa jartzeko 2 poligonoko 538 partzelaren sarreran. Partzela horretan etxebizitza eraiki ahal izateko, hirigintza hitzarmena sinatu zuen 2009ko martxoaren 2an eta bertan azaltzen dira zenbait emate eta urbanizatzeko betebeharrak. Arkitekto aholkulariek egin duten txostena irakurri eta eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da S. jaunak eskatutako baimena ematea, baldintza hauekin:

- Baimen hau aldi baterako da. Kalea egiteko emate eta urbanizatzeko betebeharrak gauzatu behar direnean kendu beharko du langa, sinatutako hitzarmena konplitzeko.

- Erabaki hau jakinaraztea 2 poligonoko 292 partzelako jabeei. 13 metro utziko dira langaren aurrean, lursail horretara sartu ahal izateko.

3. J.A.A.J.k lizentzia eskatu zuen, 8 metro karratuko etxola eraikitzeke 2 poligonoko 141 partzelan. Obra hori lurzoru urbanizaezinean egin nahi da eta jarduera baimendutzat hartzen du, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 111.2 artikulua. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea A. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

4. Idazkariak irakurri du Nafarroako Gobernuak 2016ko martxoaren 23an hartutako erabakia. Erabaki horretan onespina eman zaio 3 poligonoko 438 lurzatiko 15 metro karratu herrilurretatik desfektatzeari, ondotik haren erabilera F.E.A. jaunari lagatzeko, hamabost



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

urteko eperako. 15 metro karratuko etxola eraiki nahi du bertan E. jaunak, bere bordari atxikia. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea E. jaunari, baldintza hauekin:

- 15 metro karratuen mugaketa egitea obra hasi baino lehen.

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraipenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituena).
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. PLANGINTZA OROKORRA: UDAL-HELBURUAK ETA JARRAIPEN BATZORDEA.

2016ko urtarrilaren 27ko Osoko Bilkuran erabaki zen, Udalaren Plan Orokorra prestatzeko asmoa adieraztea eta lankidetzaz hitzarmena egiteko eskatzea Nafarroako Gobernuari, Iturengo Udalaren Plan Orokorra prestatzeko prozesuaren abiapuntuak ezartzeko, 145/2002 Foru Dekretuan araututako moduan —Hirigintza planeamendua prestatu eta aplikatzearen arloan, administrazioen arteko lankidetzaz arautzen du Foru Dekretu hark—.

Hitzarmenean jarri behar dira herri-helburuak eta Jarraipen Batzordean Udalaren izenean arituko diren kideak. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Herri-helburuen zerrenda proposatzea Nafarroako Gobernuari.

2. Kide hauek izendatzea Jarraipen Batzordean aritzeko Udalaren izenean: alkatea, idazkaria, Mikel Gereka Zelaia, José María Alzuri Vertiz eta Javier Bereau Miquelarena.

4. UR-BILTEGIKO OBRA. ZUZENDARITZA TEKNIKOA.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.3 d) eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. “Biltegi erregulatzailer berria eta haren bidea Iturenen (Nafarroa)” izeneko proiektuan dauden obren zuzendaritza tekniko kontratatzeko funtsezko baldintzak onestea, komunitate-publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jarraituz. Lanen aurrekontua 12.890,11 eurokoa da (gehi BEZa).



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapenak bidaltzea 3 injineritza enpresa hauei: SERTECNA SA, CINTEC SL eta VITRUVIO INGENIEROS CONSULTORES SL.

Izaskun Altxu bileratik atera da.

5. 2015EKO KONTUAK.

2015eko kontuen espedientea aztertu ondoren, eta kontuen batzorde berezia bezalako funtzioetan, aho batez erabaki da:

1. Aldeko txostena ematea 2015eko kontuei.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

6. ZENBAIT ESKAERA.

1. M.D.M.E.k familiabakarrako etxebizitza eraiki du 1 poligonoko 10 partzelan (Latsaga Auzoa). 26,50 metro karratu lurzoru Udalari emateko betebeharra zeukan sustatzaileak. Emate hori onestea erabaki da aho batez eta hori gauzatuko duen akta sinatzea.

2. 2015eko urriaren 29ko Osoko Bilkuran erabaki zen hasiera batean onestea 3 poligonoko 126 lurzatiko 50 metro lineal okupatzea, M.A.E.B.k eraiki nahi duen ur-sarearekin, Bizarronekobordara ur-hornidura eramateko. Baldintza administratiboen plegua onetsi zen. Plegu horren 4. baldintza aldatzea erabaki da aho batez, urteko 25 euroko kanona jarritz (gehi BEZa).

3. Lizarrako Udalbatzak onetsitako mozioa irakurri da; hartan agertzen da Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformaren alde. Iturengo Udalbatzak ere, ondarea defendatzearen alde dagoela adierazi du aho batez. Horrela, *San Joakineko* baselizaren egoera juridikoa aztertuko da, eta ahal bada, inskribatuko da Udalaren izenean.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2016ko martxoaren 2koa, "BIDEEN KONPONKETA ETA GARBITZEKO LANAK, INGURUNEA MANTENDU ETA HOBETZEA. UDABERRI ETA UDAKO SASOIA" izeneko lanak onetsi zituenak.

- 2016ko martxoaren 2koa, "UDAL BULEGOEN, KALEEN, PLAZEN ETA HERRIGUNEEN GARBIKETA. UDABERRI ETA UDAKO SASOIA" izeneko lanak onetsi zituenak.

- 2016ko maiatzaren 2koa, "BIDEEN KONPONKETA ETA GARBITZEKO LANAK, INGURUNEA MANTENDU ETA HOBETZEA, G.E. HARTZEN DUEN LANGILEAREKIN. UDABERRI, UDA ETA UDAZKENA HASIERAKO SASOIA" izeneko lanak onetsi zituenak.

- 2016ko maiatzaren 2koa, Lindutx Baztan SLk jarri duen 33/2016 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan pertsonatzea eta prokuradore eta letratuak izendatzea erabaki zuena.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Mendietako Zerbitzuak L.M.ri eman dion baimena larreak erretzeko; Mendietako Zerbitzuko zuzendariaren 147/2016 Ebazpena, urtean zehar aprobetxatzen diren arbolak botatzeko baimena eman zuena; Nafarroako Gobernuak eman duen baso-aprobetxamenduko baimena —J.M.F.ri—; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko apirilaren 12an emandako Ebazpena, F.J.A.ri baimena eman ziona, ura hartzeko *Argiñerrekatik*; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2016ko apirilaren 20an emandako Ebazpena, Landa Garapena, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuari baimena eman ziona, arrain-haztegiko presa txikia kentzeko; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; “*Tren Txikito*”ri buruzko erakusketa.

9. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 19:15a direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.